Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Pilar Araukua Andikoetxea

Bermeo
Bizkaia (1933)



Aurkibidea

Biografia



Talakoetxean jaio zen. Gurasoak ere bermeotarrak zituen, itsasoagaz lotura zuzena zutenak. "Kansion" ezizena familiako baporetik jaso zuen. 7 neba-arrebatatik alaba bakarra izan zen eta umetatik lagundu behar izan zuen etxean. Denboraldi luze batez, Deustun (Bilbo) egon zen izeko baten etxean bizitzen. Aita itsasgizona zuen eta Gerra Zibilean Bilboko Larrinagako kaltzelan egon zen bertako preso militarrak zaintzen. Elantxobeko gizon bategaz ezkondu zen eta 22 urte zituela bertara joan zen; hala ere, gero berriro ere jaioterrira bueltatu zen. Bere lehengusina Mari "Kansion"ekin batera egin genion elkarrizketa.

Zintak

BRM-110

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2012-04-24
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

BRM-111

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2012-04-24
- **Iraupena**: 72 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Bilbao Telletxea, Arantza

Pasarteak

1. Basora egurretan eta portura ikatzetan

- **Erref**: BRM-110/003
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:02:12. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:
Basora joaten ziren su-egur bila. Abar-sortak egin eta buruan ekartzen zituzten, bigungarria ('sorkia'), ipinita. Portura ere joaten ziren baldeaz harrikatz hondarrak biltzera. Behin, basoaren jabeak harrapatu eta aizkorak eta denak kendu zizkieten. Matxitxako aldeko basoetara joan ohi ziren egurretara.

2. Haizete batek Frantxunatxeta aldea hondatu

- **Erref**: BRM-110/006
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:08:24. **Bukatu**: 00:09:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Jaioteguna. Frantxunatxetan jaio zen. Hainbat tailer zegoen inguru hartan. Haizete batek hondatu zuen auzoa eta gaur egun ez dago lantegirik. Bi urterekin etorri zen Aurrekoetxea kalera.

3. Ama itsasoan ito 1934ko Iraultzaren egunetan

- **Erref**: BRM-110/007
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:09:47. **Bukatu**: 00:11:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
"1934ko Iraultza" gertatu zenean, ez zegoen ogirik Bermeon eta Mariren ama, lagun batzuekin batera, Gernikara joan zen janari bila. Erosketak egin eta lagun taldetxo bat bildu zen itzulera baporean egiteko. Mundakako parean zurrunbilo batek hartu, urperatu eta hainbat ito ziren, tartean ama. Marik hamar urte zituen. Pilarrek kontatzen du bere aitak nola aurkitu zituen gorpuak. Zoritxarraren berri izan zelarik, Mariren etxean bizitako giroa.

4. Igerian ez zekien bakarra salbatu

- **Erref**: BRM-110/009
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:12:17. **Bukatu**: 00:14:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Hondoratu zen barkuan pertsona bat zetorren igerian ez zekiena eta bera salbatu zen bakarrik, piper-txorizero zaku bati helduta. Erru handiena batelaren jabeak izan ei zuen, hainbeste jende hartzeagatik hain barku txikian. Mundakan gurutzea dago itotakoen omenez, ezbeharra gertatu zen lekuaren aurrean. Itsaso bizia zegoen.

5. Patatak saltsa berdean ipintzen zortzi urterekin

- **Erref**: BRM-110/012
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:17:28. **Bukatu**: 00:19:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:
Pilarrek zortzi urte bete orduko hainbat arropa-garbitze lan egiten zuen etxean. Kantuan arropa garbitzen. Eta adin horrekin patatak saltsa berdean ipintzen ere bazekien. Egin egin behar, ama portuan lanean eta aita itsasoan ibiltzen baitziren.

6. Arropa erosi ahal izateko umeak kontserba fabrikara

- **Erref**: BRM-110/013
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:19:14. **Bukatu**: 00:20:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:
Gaztelugatxera joateko ohitura handia zegoen San Joan egunean. Egun horretarako arropa erosteko, kontserba fabriketara joaten ziren umeak antxoari burua kendu, gatza eman eta horrelako lanak egitera.

7. Bilbora, bapore batean ezkutatuta

- **Erref**: BRM-110/014
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:20:02. **Bukatu**: 00:21:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Pilarrek izeba bat zuen inude Bilbon. Athletic-en partidua zegoen eta Bermeotik barku pila joan zen. Pilar barku horietako batean sartu zen ezkutuka eta joan. Bilbon konpondu zen izeba bizi zen etxea aurkitzeko. Alabatzat hartu zuten etxe hartan. Gero Bermeora etorri zen. Gizona elantxobetarra izan du eta herri horretara ezkondu zen

8. Bilboko Arriagan antzerkia egiten

- **Erref**: BRM-110/016

- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:22:10. **Bukatu**: 00:23:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:
Pilarrek-eta antzerkia egin ohi zuten Bilboko Arriagan Erregenetan. Portua bezala apaintzen zuten eszenategia; berak, arrantzale jantzita, bertsoak botatzen zituen, eta zantzuak (irrintziak) ere bai. Batutako dirua presoentzat eta gaixoentzat izaten zen.

9. Mendizale amorratua

- **Erref**: BRM-110/017
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:23:22. **Bukatu**: 00:24:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Oso mendizalea izan da Pilar. Menditik bueltan, inoiz, Begoñako Ama Birjinari egiten zioten bisita, eta kanpoaldean euskaraz abesten zuten. Guardia zibilekin arazoak. Puntuzko txaketak, kaikuak eta horrelakoak josten zituen.

10. Buzkantzak gizonezkoentzat

- **Erref**: BRM-110/019
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:28:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Ama iluntzean etortzen zen lanetik. Afaltzeko orduan buzkantzak eta zatirik onenak itsasoan zebiltzan gizonezkoentzat izaten ziren. Kazuela erdian ipinita jaten zen. Behin, barkuren bati galdutako koipea aurkitu zuten itsasoan eta etxeetan banatu zen frijitze lanetarako. Izokina ez zitzaion gustatzen, baina amak "lebatzaren lehengusua" zela esan zionetik oso gozoa iruditzen zitzaion.

11. Arraina baserriko gauzen truke

- **Erref**: BRM-110/021
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:29:42. **Bukatu**: 00:31:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Dendetan erosketak apuntatu egiten ziren, eta gizonek soldata kobratzen zutenean, ("partila egindakoan") ordaintzen ziren zorrak. Trukerik ez zen egiten dendan. Baserritarrekin bai inoiz: arraina baserriko gauzen truke. Bermeotik kamioiak irteten ziren herrietara arraina saltzera, herrietan ez zen arrandegirik izaten eta. Oinez ere joaten ziren emakumeak arrainarekin.

12. Bermeotik Bilbora oinez

- **Erref**: BRM-110/022
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:31:08. **Bukatu**: 00:32:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Dirurik ez zegoenez, Bilbora oinez joaten zen jendea askotan, Solluben zehar. Lehengo zaharrak lan asko egindakoak dira. Marik bere amaren zoritxarra dakar berriz gogora; zer burubide erabiliko ote zuen itotzear zegoenean, zurrunbiloren mende.

13. Familian denak nazionalistak, osaba errepublikanoaizan ezik

- **Erref**: BRM-110/024
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:33:53. **Bukatu**: 00:36:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Familian denak izan dira nazionalistak, osaba errepublikanoa izan ezik. Honek gura izaten zuen emazteak ere berak bezala bota zezan, baina emazteak ez zuen amore ematen eta nazionalista botatzen zuen. Nortasun handiko emakumea zen. Mariren amak ikurrintxoa erabiltzen zuen arropan josita.

14. "Gora Euskadi askatuta!" eta "¡Viva la República!"

- **Erref**: BRM-110/025
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:36:08. **Bukatu**: 00:37:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Bermeoko emazte errepublikano batek matrailekoa eman zion kalean gizon nazionalistari honek gora "Euskadi askatuta!" esan zuelako, berak "¡Viva la Republica!" oihu eginez.

15. Andre errepublikanoak senar nazionalistari "mehatxua"

- **Erref**: BRM-110/027
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:39:04. **Bukatu**: 00:40:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
"Baltzak" esaten zitzaien errepublikanoei. Pilarrek ezagutu zuen ligeroan bandera errepublikanoa eramaten zuen emakume bat. Gizona nazionalista zuen. Hari esaten zion ohera zetorrenean ez zuela "hura" izango. Pilar-eta umeak ziren eta ez zuten gauza handirik ulertzen. Inoiz istiluak ere izaten ziren euren artean.

16. Moja baten "Aitaren" faxista

- **Erref**: BRM-110/029
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:42:00. **Bukatu**: 00:43:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:
Bermeoko ikastetxe bateko moja batek horrela erakusten omen zuen "Aitaren" egiten: "Franco, Mola, Falange Española".

17. "Putas, putas son... las que están en el balcón"

- **Erref**: BRM-110/031
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:44:06. **Bukatu**: 00:45:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Cara al Sol kantatzen jartzen zituzten Mari-eta kalean. Pilarrek gogoan du kalean nola ibiltzen zen falangista taldea kalean eta zer kantatzen zieten leihotik begira geratzen zitzaizkienei: "Putas, putas son... las que están en el balcón".

18. Pilarren amari diru-eske emakume frankista bat

- **Erref**: BRM-110/032
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:47:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Behin Pilarren amari herriko emakume frankista bat joan zitzaion diru eske gerra denboran. Amak senarra gerran zuen, seme-alabak ugari eta familia mantentzeko. Emakumearen aitarengana jo zuen eta ez zuten gehiago molestatu.

19. Soldadu italiarren arropa garbitzen

- **Erref**: BRM-110/033
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:47:25. **Bukatu**: 00:48:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Pilarren amak-eta soldadu italiarren arropa garbitzen jardun zuten denboralditxo batez janari truke. Herriko jendeak salatu egin zituzten nazionalistak zirelako. Ondo portatu ei ziren italiarrak.

20. Emakume arrain-saltzaile bati komisarian egindako galdeketa

- **Erref**: BRM-110/035
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:49:43. **Bukatu**: 00:51:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Behin emakume arrain-saltzaile bat eraman zuten komisariara deklaratzera. Gauza bat galdetu eta beste bat erantzuten zuen. Galdeketa xelebrea. Salatzaileek gaizki amaitu omen dute, jainkoak zigortu omen ditu.

21. Irrati handia ezin pasatu

- **Erref**: BRM-111/002
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:00:43. **Bukatu**: 00:02:33

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Arrantza motak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:
Hiztunen aitak hurbilean ibiltzen ziren arrantzan, eta ez zegoen estraperlorik haien artean. Geroago, Dakarretik eta, ekartzen zituzten gauzak, irratia esate baterako, baina arazoa izaten zuten portuko karabineroarekin.

22. Karabineroak

- **Erref**: BRM-111/003
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:02:33. **Bukatu**: 00:03:52

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:
Gurasoen garaian, onak ziren karabineroak; baina hala ere ez zituzten etxerako nahi. Hala esan zion Pilarrren amak karabinero bati. Gaur egun, euskaldunak eta abertzalek dira haien ondorengoak.

23. Erru barik atxilotu eta jipoitu

- **Erref**: BRM-111/006
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:05:17. **Bukatu**: 00:08:26

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Guardia de Asaltok jipoi ederrak eman zituen Bermeon; bat Pilarren nebari, inolako errurik gabe. Gabon-gaueko istilu batzuetan, atxilotu egin zuten eta aitaren aurrean jipoitu zuten kuartelean.

24. Ugazabaren zaindari kartzelan

- **Erref**: BRM-111/007
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:08:26. **Bukatu**: 00:09:45

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Aita Larrinagako kartzelan egon zen presoak zaintzen gerra garaian. Tartean zegoen emaztearen etxeko ugazaba preso, eta familiakoek eskatuta, hurbildu eta lagundu zion.

25. Semearen askatasuna, esker onez

- **Erref**: BRM-111/008
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:09:45. **Bukatu**: 00:12:08

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Nebaren epaiketa izan zenean Billbon, agertu zitzaion aitari berak kartzelan zaindutako "señoritoa" eta, esker onez, semea askatu eta arazorik ez izateko gomendio-idazki bat eman zion.

26. Larrinagako kartzelan zaindari

- **Erref**: BRM-111/009
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:12:08. **Bukatu**: 00:14:14

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Hainbat euskaldun egon ziren altxamenduaren aldeko presoak zaintzen Larrinagako kartzelan. Pilarren aita izan zen zaindari; UGT edo CNTkoak ere bazeuden. Inoiz ez zuen inolako dirurik jaso.

27. Itsas azalean koipea eta gomazko fardoakk

- **Erref**: BRM-111/010
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:14:14. **Bukatu**: 00:14:53

Gaia(k):

- Itsasoa

Laburpena:
Arrantzaleek itsasoan koipea eta gomazko fardoak aurkitzen zituzten. Horiek salduta, diru apur bat ateratzen zuten. Mariren etxean gela bat izan zuten gomaz beteta; Pilarrenean, arraina frijitzeko erabiltzen zen itsasoko koipea.

28. Nola prestatu itsukia

- **Erref**: BRM-111/011
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:14:53. **Bukatu**: 00:16:59

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Lehen, itsukia saltsan jaten zen; orain, frijiturik ere jaten dute. Sukaldean arraina nola prestatzen duten azaltzen dute.

29. Kafetera betea hustu aguazilak

- **Erref**: BRM-111/014
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:19:28. **Bukatu**: 00:20:18

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Egunen batean, eskaileran ezustekoren bat izan zuen goizaldean Mariren nebak. Kafetera eramaten zuten itsasora. Inoiz, herriko aguazil bermeotar baserritarrak goizaldean itsasora zihoazenei kafeteran kolpea eman eta kaferik gabe utzi izan zituen arrantzaleak.

30. Etxeko komuna eta bainua

- **Erref**: BRM-111/018
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:25:49. **Bukatu**: 00:26:49

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Etxean ez zen dutxarik egoten; komuna beti. Etxe batzuetan, eskaileran egoten zen denentzako komuna. Euren etxeetako komuna kutxa antzeko egurrezko gauza bat izaten zen.

31. Antzinako bainua, etxean

- **Erref**: BRM-111/020
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:27:00. **Bukatu**: 00:27:37

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Itsasotik etorrita, etxekoak kalera bidaltzen zituen aitak, bera balde handi batean sartuta garbitu ahal izateko.

32. Errekara arropak garbitzera

- **Erref**: BRM-111/021
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:27:37. **Bukatu**: 00:28:24

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Zikinkeriarik ez zen egoten. Errekan, amak arropak garbitu bitartean, biluzik ibiltzen ziren umeak.

33. Zorriak

- **Erref**: BRM-111/022
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:28:24. **Bukatu**: 00:29:19

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Ez zuten zorririk izaten. Batzuek arkakusoak izaten zituzten; edo zikinagatik edo zaharrak zirelako...

34. Gaurko gazteen izarak

- **Erref**: BRM-111/023
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:29:19. **Bukatu**: 00:31:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Gaurko gazteek garbigailua izan arren, ez dute ganorarik arropa garbitzeko. Nola lehortzen duten arropa kontatzen dute Pilarrek eta Marik.

35. Eskuz josita barneko arropa

- **Erref**: BRM-111/024
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:31:40. **Bukatu**: 00:34:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Etxean josten zuten barneko arropa. Ez zuten prakarik erabiltzen; orain ere ez, baina osasun edo garbitasun arazoengatik.

36. Txiza dariela

- **Erref**: BRM-111/025
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:34:08. **Bukatu**: 00:35:45

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Txizari eutsi ezinik dabiltzan inguruko emakumeekin gertatutako pasadizoak kontatzen dituzte.

37. Toallatxoetatik konpresara

- **Erref**: BRM-111/026
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:35:45. **Bukatu**: 00:37:08

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Gaur egun kulero bereziak eta konpresak daude txizaren arazoarentzat. Lehen, aldiz, toallatxoak erabiltzen ziren.

38. Hilerokoarentzako toallatxoak

- **Erref**: BRM-111/027
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:37:08. **Bukatu**: 00:37:54

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Toallatxoak erabiltzen ziren hilerokoaren egunetan; apurtzen zirenean josi egiten ziren, kuleroak bezala.

39. Lehenengo hilerokoa

- **Erref**: BRM-111/028
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:37:54. **Bukatu**: 00:39:41

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Lehenengo hilerokoa etorri zitzaionean ez zekien zer zen eta beldurturik, txilioka hasi zen. Ordura arte ez zion inork ezer azaldu.

40. Hilerokoaren mina

- **Erref**: BRM-111/029
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:39:41. **Bukatu**: 00:41:57

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Hilerokoaren mina kentzeko zer hartzen zuten, eta ze ondorio izan zuten erremedioek kontatzen dute. Aspirinak haurdunaldia eten zion, eta umea galdu zuen.

41. Ez zekien haurdun zegoenik

- **Erref**: BRM-111/030
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:41:57. **Bukatu**: 00:44:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Haurdun egon arren, hilerokoak zituen, eta ez zekien bere egoeraren berri. Naturista batek ere okerreko erremedioa eman zion. Azkenean pila bat bitamina eman behar izan zioten.

42. Zazpi kiloko umea erditu

- **Erref**: BRM-111/031
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:44:15. **Bukatu**: 00:45:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Bitaminekin asko hasi zen umea eta zazpi kilo izan zituen jaio zenean. Amak odol asko galdu zuen eta transfusioa egin behar izan zioten; bestalde, zesarearik ez ziotenez egin, erabat urratuta geratu zen.

43. Jaioberria gaixotu

- **Erref**: BRM-111/032
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:45:40. **Bukatu**: 00:46:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Umea bataiatu eta gero, jaio eta hirugarren egunean, gaixotu egin zen eta 50 injekzio sartu zizkioten. Betiko geratu zen gaixo.

44. Umea hilda jaio zen

- **Erref**: BRM-111/033
- **Iraupena**: 0:04:52. **Hasi**: 00:46:08. **Bukatu**: 00:51:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Haurdun zegoela, 40.000 ogerlekoko txerto bat behar zuela esan zioten. Lagun baten bitartez eraman zuten mediku batengana eta hark esan zion ez zuela txerto hori behar. Azkenean, hilda jaio zen umea.

45. Odol kutsatua sartu zioten

- **Erref**: BRM-111/034
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:51:00. **Bukatu**: 00:53:21

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:
Mediku lagun batentzako odola ematera joan zen ospitalera, eta orduan jakin zuen urteak lehenago izan zituen transfusioetan sartu ziotela odol kutsatua.

46. Neska ala mutila izango?

- **Erref**: BRM-111/035
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:53:21. **Bukatu**: 00:53:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Haurdunaldietan, ez zekiten neska ala mutila izango zuten; batzuetan aurpegira begiratuta, mantxaren bat ikusita edo, iragartzen zuen baten batek zer izango zen.

47. Bainua itsasoan

- **Erref**: BRM-111/037
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:54:27. **Bukatu**: 00:55:05

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Batzuk portura, besteak hondartzara edo haitzetara. Aritzatxura, portura, Tonpoira edo Frantzunatxetara joaten ziren. Behin bultza egin zioten Pilarri kaian, eta estualdia igaro zuen, ez baitzekien igeri egiten.

48. Bainujantzia aberatsek

- **Erref**: BRM-111/038
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:55:05. **Bukatu**: 00:56:38

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Aberatsek baino ez zuten bainujantzia; gonak hanka artean bilduta eramaten zituzten. Pilarri bainujantzia oparitu ziotenean, bakarra zen, eta mutilak bera ikustera hurbiltzen ziren.

49. Neskak neskatara haitzetara

- **Erref**: BRM-111/039
- **Iraupena**: 0:00:29. **Hasi**: 00:56:38. **Bukatu**: 00:57:07

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Mutilak alde batetik eta neskak bestetik ibiltzen ziren haitzetan edo hondartzan. Orduan ere, baten bat joaten zen mutilarekin.

50. Lapatan eta maguriotan

- **Erref**: BRM-111/040
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:57:07. **Bukatu**: 00:58:12

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk
- Natura » Fauna » Itsas fauna

Laburpena:
Pilar lapatan eta maguriotan ibilitakoa da. Hemengo magurioa kanpokoaren aldean gozoa da jateko.

51. Dantzarako "mesedez"

- **Erref**: BRM-111/041

- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:58:12. **Bukatu**: 01:00:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Dantzan egiteko, "mesedez" eskatzen zuten mutilek eta neskek baietz edo ezetz. Mutil batek Pilar jo egin zuen, ezetz esateagatik. Ordaintzeko unea heltzen zenean, alde egiten zuten.

52. Biribilketan gertatutakoak

- **Erref**: BRM-111/043
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 01:01:31. **Bukatu**: 01:03:17

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Aurreskuan ari zirela, zaintiratua egin zioten Mariri; Pilarri zangotraba, eta zapaldu egin zuten, baina egin zion mendekua hanka luzatu zuen mutilari.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-31

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com